

**XXI. MENDE HASIERARAKO  
HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK**

**ITUN BERRITU BATERANTZ**

**Gogoeta irekiaren ondorengo txostena**

*EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA  
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA*



**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa  
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

**<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>**

Argitaraldia: I.a, 2009ko urtarrila

Ale-kopurua: 200 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: [www.euskadi.net/euskara21](http://www.euskadi.net/euskara21)

Azala: Ainhoa Arroyo & Nerea Cobreros

Diseinua eta maketazioa: Junkal Motxaile

Inprimaketa: \_\_\_\_\_

ISBN: 978-84-457-2873-4

Lege gordailua: \_\_\_\_\_

# AURKIBIDEA

## *HITZAURREA*

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea 11

I. SARRERA 17

II. GARENA: NONDIK GATOZ, NON GAUDE, NORA GOAZ 19

III. LAN-ILDO NAGUSIAK 39

IV. ITUN BERRITU BATEN ABIAPUNTUAK 53



## **EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE OSOKO KIDEAK**

1. Lehendakaria: Juan Jose Ibarretxe Markuartu jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
2. Lehendakariordea: Miren Azkarate Villar andrea, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua.
3. Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
4. Joseba Erkizia Itoitz jauna, HABEko zuzendari nagusia.
5. Julian Beloki Gerra jauna, Eusko Irratia S.A.ko zuzendari-koordinatzailea, Euskal Irrati Telebistako zuzendari nagusiak aukeratua.
6. Joseba Alkalde Amutxategi jauna, Lehendakariordetzako idazkari nagusia, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak aukeratua.
7. Pedro Otxoa Bernales jauna, Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak aukeratua.
8. Jon Urrutia Mingo jauna, IVAPeko zuzendari nagusia.
9. Lorena López de la Calle andrea, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, Arabako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
10. Miren Dobaran Urrutia andrea, Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
11. Estibaliz Alkorta Barragan andrea, Euskara zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
12. Jokin Bildarratz Sorron jauna, EUDELeke elkarteburua, Euskal Udalen Elkarteko ordezkaria.
13. Andrés Urrutia Badiola jauna, euskaltzainburua, Euskaltzaindiko ordezkaria.

Hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artetik organo honen 2007ko urriaren 24ko Aginduaren bitartez izendatuak:

14. Dorleta Alberdi Aretxederreta andrea
15. Sagrario Aleman Astiz andrea
16. Kike Amonarriz Gorria jauna
17. Aurelia Arkotxa andrea
18. Inazio Arregi Gordo jauna
19. Joseba Arruti Lafuente jauna
20. Nerea Azurmendi Zabaleta andrea
21. Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna
22. Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea
23. Allande Boutin jauna
24. Ana de Castro Rubalkaba andrea
25. Gotzon Egia Goienetxea jauna
26. Ana Eizagirre Garate andrea
27. Aingeru Epaltza Ruiz de Alda jauna
28. Lore Erriondo Korostola andrea
29. J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna
30. Estitxu Fernandez Maritxalar andrea
31. Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna
32. Jokin Gorozika Bidaurrezaga jauna
33. Fernando Iraeta Kintela jauna
34. Jean Claud Iriart jauna
35. Odile Kruzeta Olañeta andrea
36. Miguel Lazpiur Lamariano jauna
37. Miren Elixabete Larrinaga Artetxe andrea
38. Anjel Lertxundi Esnal jauna
39. Koldo Martinez Urionabarrenetxea jauna
40. Ludger Mees jauna
41. Mertxe Mugika Balanzategi andrea
42. Imanol Murua Uria jauna

43. Eneko Oregi Goñi jauna
44. Rosa Miren Pagola Petrirena andrea
45. Carlos Ruiz Gonzalez jauna
46. Pello Salaburu Etxeberria jauna
47. Miriam Urkia Gonzalez andrea
48. Ana Urkiza Ibaibariaga andrea
49. Jesus Uzkudun Illaramendi jauna

Eusko Legebiltzarrak proposaturik izendatuak:

50. Iciar Lamarain Cenitagoya andrea
51. Alberto Lopez Basaguren jauna
52. Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea
53. Txomin Peillen Karrikaburu jauna
54. Tomas Uribeetxebarria Maiztegi jauna

Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatua:

55. Erramun Osa Ibarloza jauna, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendaria

**“XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN  
OINARRIAK” IZENeko BATZORDE-ATAL BEREZIA**

Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-ataleko lehendakaria

Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria

Kike Amonarriz Gorria jauna

Aurelia Arkotxa andrea

Joseba Arregi Aranburu jauna

Mikel Basabe Kortabarria jauna

Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna

Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea

Ana de Castro Rubalkaba andrea

Ana Eizagirre Garate andrea

Lore Erriondo Korostola andrea

Miren Dobarán Urrutia andrea

Gotzon Egia Goienetxea jauna

Ramon Etxezarreta Aizpuru jauna

J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna

Itziar Idiazabal Gorrotxategi andrea

Iciar Lamarain Cenitagoya andrea

Gorka Landaburu Illaramendi jauna

Miguel Lazpiur Lamariano jauna

Anjel Lertxundi Esnal jauna

Jose Luis Lizundia Askondo jauna

Alberto Lopez Basaguren jauna

Lucía Martínez Odriozola andrea

Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna



Jasone Mendizabal Altuna andrea  
Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea  
Xabier Mendiguren Bereziartu jauna  
Ludger Mees jauna  
Mertxe Mugika Balanzategi andrea  
Pedro Ochoa Bernales jauna  
Eneko Oregi Goñi jauna  
Carlos Ruiz Gonzalez jauna  
Pello Salaburu Etxeberria jauna  
Tomás Uribeetxebarria Maiztegi jauna  
Ana Urkiza Ibaibariaga andrea  
Andres Urrutia Badiola jauna  
Jesus Uzkudun Ilarramendi jauna  
Mikel Zalbide Elustondo jauna

**BATZORDE-ATAL IRAUNKORRA**

**Oinarrizko Txostena prestatu duena**

Aurelia Arkotxa andrea  
Lore Erriondo Korostola andrea  
Alberto Lopez Basaguren jauna  
Eneko Oregi Goñi jauna  
Pello Salaburu Etxeberria jauna  
  
Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria  
Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-atalburua



# HITZAURREA

---

## *Patxi Baztarrika*

### *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta “XXI. Mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” batzorde-atal bereziko batzorde iraunkorreko buru*

ESKER ONEKO HITZAK datozkit, 2007ko urrian Eusko Jaurlaritzaren organo aholku emaile Euskararen Aholku Batzordea berritu zelarik, “XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” gogoeta prozesuak eman duenaz hitz egiterakoan, bai ekarpenei dagokienez baita batzordekideen eta herritarren partaidetza zabalari dagokieenez ere. Beste horrenbeste agertu nahi diet **Euskara 21** eztabaidari hauspoa eta proiektzioa eman dioten kazetari eta hedabideei, beren laguntza ezinbestekoa izan baita eztabaida hau gizarteratzeko.

2005-2009 aldirako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak herritarren aurrean hartutako konpromisoa gauzatzeko asmoz abiarazi zuen eztabaidak xede argiak zituen: batetik, hizkuntza politikari buruz aurreiritzi eta mugarik gabe eztabaidatzea; bestetik, eztabaida prozesu horretan ahalik eta sektore gehienen partaidetza bilatzea/sustatzea; hirugarrenik, XXI. mendean euskara indarberritzen jarraitzeko mugarriak zedarritzea, nondik gatozen, non gauden eta nora egin nahi dugun sakon aztertuz; azkenik, gutxiagotutako hizkuntza bat indarberritzeko ezinbestekoa den gizarte-adostasunerako ekarpena egitea.

Hilabeteak igaro dira, “XXI. mendeko hizkuntza politikaren oinarriak” batzorde-atal iraunkorreko kideek Oinarrizko Txostena taxutu eta eztabaida eta gogoeta prozesua abian jarri zutenetik. Tartean, batzorde-atal bereziko kideek ez ezik herritarrek ere hogeita hamar ekarpen luze baino gehiago egin dizkiote oinarrizko txostenari; ildo beretik, hiru mila iruzkin baino gehiago jaso dira **Euskara 21** egitasmoak

eztabaidan jarritako gaien inguruabarrean. Halaber, milaka herritarrek web-gunearen bidez jaso dute gogoeta-prozesuak arian-arian ekoitzi duenaren berri, eta horietako hainbatek, bidenabar, iritziak idatzi eta ekarpenak egin dituzte.

Hizkuntza politika kontuetan azken urteotan gertatu den eztabaidarik oparoena eta emankorrena egin dugu, eta hori poztekoa da. Hori denon lorpena da ezbairik gabe. Iritzi trukatzeko sanotik eta haren bidez adostasuna bilatzearen ahaleginetik baizik ezin indar baitaiteke bai euskara bai gure arteko bizikidetzaren ere.

Oinarrizko Txostena idatzi zuen batzorde-atal iraunkorrek berak prestatutakoa da beste liburu honek biltzen duen testua ere, **Euskara 21** egitasmoak kaleratu duen laugarrena jada. Testuinguru horretan, komeni da argitzea txosten honek ez duela eztabaida-prozesua abiarazi zuen Oinarrizko Txostena ordeztzen —orduan esandakoak indarrean baitaude—, osatzen baizik.

Nolanahi ere, batzorde-atal iraunkorrean, batzorde-atal berezian eta askotariko foroetan azaldutako iritziak, jasotako ekarpenak, azaleratutako ikuspuntuak integratzeko egindako ahalegin baten emaitza duzue eskuartean. Hala ere, txosten hau askotariko iritziak integratzeko ahalegina izanagatik ere, ez du esan nahi mundu guztiak berdin pentsatzen duenik, batzordeko kideen iritziak ez ezik herritarrenak ere integratzeko asmoz egindako ekarpen bat da, ez gehiago baina ezta gutxiago ere, eta hori da bere baliorik behinena. Horiek horrela, txosten honek ez ditu eztabaidan agertu diren ekarpen eta iritzi guzti-guztiak biltzen, ezta agortzen ere, eztabaidagaiak asko izan baitira; zenbait iritzi eta ekarpen elkarren artean kontrajarriak izan dira gainera, beraz, hainbat ikuspuntu jasotzea ezinezkoa gertatu da.

Eztabaida-prozesuak eman duena kontuan hartuz, hizkuntza politikaren habeak eraberritzea da etorkizun hurbilean jorratu beharreko erronka nagusia. Horretarako aukera paregabea dugu eskuartean. Izan ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) hamar urte bete dituelarik, ezinbestekoa gertatzen da Plan Nagusi

hori berritzea, egungo euskal hiztunen zein bihar-etzikoen beharrei erantzuten jarraitzeko. Honenbestez, langintza kolektibo horretan eskuartzera gonbidatu nahi ditut gogoeta-saio honetan parte hartu duten guzti-guztiak. Halaber, oraindik animatu ez direnei, uzkur antzean aparte sentitu direnei ere dei eta gonbit bera luzatu nahi nieke, oso garrantzitsua baita haien partaidetza ere. Izan ere, denoi baitagokigu euskararen iraganaz, orainaz eta etorkizunaz jardutea eta euskararen indarberritzea ahalbidetzeko helduleku berriak jartztea.



**XXI. MENDE HASIERARAKO  
HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK**

**ITUN BERRITU BATERANTZ**

**Gogoeta irekiaren ondorengo txostena**

---

**2009ko urtarrilaren 29a**





## I. SARRERA

2008<sup>KO</sup> APIRILAREN 29<sup>AN</sup> argitaratu zen Euskara 21 gogoeta prozedurari hasiera publikoa ematen zion Oinarrizko Txostena, “XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” izeneko batzorde-atal bereziaren batzorde-atal iraunkorrak idatzia. Gaur plazaratzen dugun txosten hau ez dator, alabaina, hura ordezttera; aitzitik, hura osatu eta aberasteko asmoz jardun dute lanean bai batzorde-ataleko ki-deek, bai batzorde-atal iraunkorrek, bai Euskara 21 webgunearen bidez gogoeta eta eztabaidan parte hartu duten milaka herritarrek ere.

Askotarikoak izan dira, beraz, iritziak, ikuspuntuak eta proposamenak. Haietatik, ugari izan dira ñabardurak, proposamen osagarriak eta hobekuntzak; beste batzuk, berriz, urrutiko ikuspuntuetatik idatziriko gogoetak eta proposamenak izan dira. Merezki zuten arretaz den-denak aztertu ditu batzorde-atal iraunkorrak txosten hau idazten hasterako, ekarpen guztiak integratzeko saio erabatekoan. Hala ere, ezinezkoa gertatu da ideia guztiak biltzea gogoeta irekiaren ondorengo txosten honetan, asmoa ez baita sekula izan batu ezin daitezkeenak batzea, baizik eta mende berriaren hasierarako egokia izan behar duen hizkuntza politika berri baten oinarri koherenteak eta eragingarriak finkatzea.

Kontuan har dezagun, bestalde, “Itun berri baterantz” izenburuko txosten honek ez duela, berez, hizkuntza politikari buruzko eztabaida agortzen. Aitzitik, prozesu honetan parte hartu duten guztiak, hala nola zeinahi arrazoiengatik parte hartu ez dutenak ere,

deitzen ditugu ber-bertatik, aurrerantzean ere iritziak, proposamenak eta gogoetak plazaratzeko. Horixe baita, beste deusen gainetik, euskararen biziberritzeak behar duena: adostasun eragingarrira eraman gaitzan iritzi-trukaketa leiala. Eta horretarako bidea eman nahi dute, hain zuzen ere, ondoren datozen ideia, gogoeta eta proposamen guztiek.

## **II. GARENA: NONDIK GATOZ, NON GAUDE, NORA GOAZ**

### **1. AURREKARIAK**

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi garenok geure gizarte bizitza antolatzeko ahalmena gauzatzen hasi ginen une bertsutik dator euskara biziberritzeko ekinbide instituzionala. Lehenagotik zetorkion, jakina, arnasa euskarari, gizartearen altzoan han-hemenka sorturiko ekimenei eta euskal herritarren zati handi baten konpromiso demokratikoari esker.

Adostasun zabaleko giroan ondu zen, duela hogeita bost urte luze, euskara biziberritzeko ezinbestekoa genuen –eta dugun– legediaren oinarrian dagoen Euskararen Legetzat ezagutzen duguna (azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen erabilpena arautzen duena). Handik hona, ugari heldu dira euskararen biziberritzearekin aldez edo moldez loturiko arauak, hainbat maila eta alorretakoak.

Baina, honetara ezkerro, ekar dezagun gogora “Euskara 21” izenez ezagutzen dugun gogoeta prozesu honen abiabururako idatziriko Oinarrizko Txosten hartan esaten genuena:

Soziolinguistikaren etxean onarpen zabala duen printzipioaren arabera, ondorengo hirurok dira hizkuntza baten –edozein hizkuntzaren– biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak: legeg-marko egokia, hizkuntza normalkuntza ahalbidetzeko behar bestekoa izango dena; hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak; herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa.

Gauzak horrela, beraz, hirugarren faktorearen azken hogeita bost urteotako bilakabideari ere begiratu beharko genioke orain, nondik gatozen zehaztu nahi dugun honetan. Hizkuntzaren aldeko konpromisoari dagokionez, bi jarrera dira bereziki nabarmendu direnak: batetik, herritar heldu ugarik heldu dio bere burua euskalduntzeko ahaleginari; eta, bestetik, gehiengo zeharo garbia osatzen dute, gaur, seme-alabentzat irakaskuntza eredu euskararen aldetik eragingarrienak aukeratzen dituzten gurasoek.

### **H**izkuntzaren aldeko konpromisoari begira, bi jarrera nagusi nabarmendu dira:

- **Herritar heldu askok euskalduntzeko ahalegina egin du.**
- **Euskararen aldetik, irakaskuntza eredu eragingarriak aukeratu dituzte guraso gehienek.**

Hizkuntza baten bilakabidearen beste adierazle bat kontuan hartuz gero, bistan da oparoa izan dela kultura ekoizpenaren hazkunde kualitatiboa eta kuantitatiboa, horretarako eratu den babes publikoaren sistemaren eskutik, neurri handi batean.

Gure hezkuntza sistemak, A ereduaren salbuespenarekin, posible egiten du ikasleak gutxieneko maila bateraino euskalduntzea. Eta hori lorpen handia da. Dena den, B eta D ereduek, berez, eta berez bakarrik, ez dute ziurtatzen haur eta gazteen euskalduntzea, hezkuntza sistemak muga argiak baititu.

Bistan da, beste ahalegin batzuk ere egin behar direla gizartearen beste hainbeste arlotan: familian, aisialdian, enpresetan, eta abar. Hezkuntzak ez du, eta ezin du, hizkuntza ongi ikastearen arazoa berak bakarrik konpondu, salbuespenak salbuespen. Gainera, datuak mahai gainean ditugula, kontuan izan behar da euskalduntze prozesuan badirela beste faktore batzuk, hezkuntzaz gain, eragin handia dutenak aipatzen ari garen lorpen sozial horretan: familiaren etxeko hizkuntza, maila sozio-ekonomikoa, bizi-ingurunea, irakasleen hizkuntza gaitasuna eta prestakuntza, ikasleen atxikimendua, eta abar,

Kontuan izan behar da, dena dela, arazo honetaz ari garelarik, hezkuntza sistema antolatzeako orduan, hizkuntzaren ara-

zoak ez duela agortzen hezkuntzari dagokiona. Esan nahi da, oso jakina eta onartua den zerbait: hezkuntza sistema ezin dela oinarritu hizkuntza ikasteko beharretan bakarrik. Bere osotasunean aztertu behar da arazo hori, eta ezin da ukatu hizkuntzak baduela pisua prozesu horretan, baina ez da inondik ere kontuan hartzeko faktore bakarra izan.

**Hezkuntzak, berak bakarrik, ezin du hizkuntza ongi ikastearen arazoa konpondu.**

## **2. KULTURA EKOIZPENA: MERKATU LEGEAK, BABESA ETA KALITATEA**

Interpretazioan adostasun handia sortzen duen konstatazioa da euskal kultura ekoizpenaren hazkunde kuantitatibo eta kualitatiboari dagokiona. Zalantza gehiago, edo, zalantzak ez badira, ñabardura markatuagoak sortzen dira merkatuaren hazkundeaz ari garenean.

Egia da –eta lehentasunetan aski gora eraman beharreko kontua da honako hau– zorrotz eta zehatz ezarritako adierazleak behar ditugula kontsumoaren benetako neurriak ezagutzeko, kulturgintzaren alor guztietan, eta, era berean, zehaztu beharko liratekeela, baita ere, ekoizpena neurtzerakoan darabilzkigun parametroak. Baina, hori horrela izanik ere –hau da, gaur egun dugun ezagutza hobegarritik abiatuta ere–, garbi antzean geratzen zaigu denoi herri erakundeen laguntza politikak baldintzaturiko eskaintza batez ari garela, euskal kultura ekoizpenaz hitz egiten dugunean. Kontua da, ordea, hizkuntza ahul batean goi mailako kultura ekoizpena bermatzeko ezinbestekoa den babesak ezin diola kultura ekoizpen horri merkatuarekiko kontrastea ukatu, ez baldin bada euskarazko kultura sistema betiereko nerabazarora kondenatu nahi. Aitzitik, euskarazko kulturarekiko babes politika diseinatu eta gauzatzekoan, beregaintasun irizpidea oinarri harturik jardun beharko dute herri erakundeek.

Eta irizpide horren beraren arabera, kalitatearen zaintza eta arta da kulturgintzarekiko politika publikoen bigarren zutabe nagu-

## **K**ultura ekoizpenean:

- Ekoizpena eta merkatua uztartzea.
- Hazkunde kualitatiboa eta kuantitatiboa zaintzea.
- Kanpoko nahiz barruko proiektzioa bultzatzea.
- Laguntza irizpide askatzaileak ezartzea.

sia. Besteak beste, euskara bezalako hizkuntza batek besteek baino ezinbestekoagoa duelako erakargarritasuna, besteek baino hil edo bizikoagoa, bikaintasunaren aldeko apustua. Kontua ez da, jakina, euskaraz ekoizten den orok maisu-lanaren mailakoa izan behar duela, ez gara-eta ameskerian erori. Kontua da, ordea, euskarazko kultura ekoizpenaren batez besteko kalitateak ezin duela, inolaz ere, gure kultura ingurunearen batez bestekotik beheragokoa izan, eta gure helburua izan behar du, zalantza izpi-

rik gabe, inguru horretako batez bestekotik zertxobait gora ibiltzea. Eta hori gogoan hartuta, eta ez bestela, erabili beharko dituzte herri erakundeek euskal kulturgintzarekiko diru-baliabide publikoak.

Helburua, azken batean, bikoitza da, alor honetan: batetik, kontsumoan eragitea, kultura ekoizpenaren eta merkatuaren hazkundeak parean jartzeko eta aldi berean areagotzeko, bata bestea-gandik urrundu gabe; bestetik, eta mundu mailako kultura zirkuituetan modu eragingarri eta erakargarrian txertatu beharra dagoen euskal kultura sistemaren ikuspegitik, kalitatea eta kanpo nahiz barruko proiektzioarako ahalmenari oso arreta berezia eskaintzea.

### **3. EUSKARA PLAZAN: ERAKARGARRITASUNAREN GILTZARRI ERABAKIGARRIA**

Euskarak erreferentzialtasuna bereganatu behar badu, nahitaezkoa da eremu publikoan diharduten erakunde nahiz ordezkariak (agintariak, administrazioak, alderdi politikoeak, sindikatuak, enpresarien elkarteak, komunikatzaile eta iritzi sortzaileak eta, oro har, gizarte eragileak eta haien guztien ordezkari publikoak) aitzindaritza beregain hartzea hizkuntza politikarekiko konpromiso zehatzenetan: lehenik eta behin, ordezkari publikoak jendaurrean eta beren eragin eremuetan euskara erabiltzera behartu behar dute beren burua; bi-

garrenik, haietariko bakoitzaren eragin edota aginte eremuan euskararen erabilera bultzatu eta erraztu behar dute, eta inolaz ere ez oztopatu; eta hirugarrenik, euskara erabiltzeko jarrera guztiz modu natural eta normalean azaldu beharra dago, atzera ere euskara arazo gisa agerrarazi beharrean.

Elebitasuna helburu duen hizkuntza politika batean oinarrituriko jarrera batez ari garenez, hau da, euskararen erabilera publikoa normaltasunera, gaztelaniarekiko parekotasunera eraman nahi duen hizkuntza politika batez, eta inola ere ez hizkuntza batekiko edo bestearekiko etsaigoa zeharka nahiz zuzenean bideratzen duen hizkuntza politika batez, garbi dago, hein berean garbi egon ere, naturaltasun eta normaltasun berberaz jardun beharko dutela ordezkari eta eragile publikoek gaztelaniaz, hala egitea egoki jotzen denetan. Azken batean, lortu nahi den elebitasun ahalik eta orekatuenaren bidean, onuragarri da, zeharo, hizkuntzen arteko bizikidetza ekinbide publiko orotan bistaratzea, beharrezko edota saihestezin gerta daitezkeen asimetrien beldurrik gabe, eta haiek hizkuntza politika aurrerakoi eta ez-neutral –hots, euskararen aldeko– baten osagarritzat errebindikatu behar dira.

**Onuragarri da hizkuntzen arteko bizikidetza ordezkari publikoen jardunean bistaratzea, jendaurrean eta norberaren aginte- edo eragin-esparruan euskara erabiliz eta erabil dadin neurriak hartuz.**

#### **4. INERTZIA NEGATIBOAK ASTINDU BEHAR DIRA, HIZKUNTZA POLITIKA HERRI-AGINTEEN JARDUERAN GUNE-GUNeko OSAGAI ETA ZEHARKAKO BALIO GISA TXERTATZEKO**

Nekez mamitu liteke orain arte azaldutakoa eta hemendik aurrera azalduko dena, definitu berri dugun hizkuntza politika aurrerakoi hori ekinbide publiko orotan, eta, beraz, herri-aginteen jarduera osoko arlo guztiak kontuan hartuko dituen politika horizontala izan ezean.

**H**izkuntza politikaren zentraltasunak zeharkakotasuna ere eskatzen du. Era berean, politika orokorren muinean txertatu beharra dago hizkuntz irizpidea.

Izan ere, norabide horretatik maiz al-  
dendu den filosofia batetik gatoz, eta begi-  
-bistakoak dira horren kalteak: edozein arlo-  
-tako jarduera publikoak berezko logika bat  
izan ohi du, eta zaila —ezinezkoa ez esatea-  
rren— gertatzen da logika hori hizkuntza iriz-  
pideekin *a posteriori* uztartzea. Horrela egin  
nahi izanez gero, arazo bihurtzen da, behin

eta berriz, euskararekiko kezka edo ardura, eta ez, beharko lukeen bezala, aginpide publikoaren berezko osagai. Era berean, hizkuntza politikaren zentraltasunak ez dakar kanpoko fiskalizatze behaztopa-  
garri bat ezartzea, baizik eta hizkuntza irizpidea erabaki, gogoeta, ekimen eta prozesu guzti-guztietan modurik naturalenean txerta-  
tzea. Ikasbidea eskatzen duen prozesua da hau, jakina, eta egitura malgu arinak. Baina ez ote da hori bera, bestela ere, edozein Ad-  
ministrazioarentzat lehen mailako helburua? Hau da, hizkuntza iriz-  
pideen zentraltasunaren printzipioak ezin du izan Administrazio mo-  
derno eragingarri baten helburu orokorretik aparteko kontu bat. Era  
berean, kudeaketaren kalitatearekin estu loturiko faktoretzat hartu  
beharra dago hizkuntza irizpideen zentraltasuna.

Zentraltasun horrek, bestalde, zeharkakotasuna ere eskatzen du, nahitaez, hizkuntza politikarentzat, ez baita inola ere proposa-  
tzen, zentraltasunaren izenean, gunean guneko hizkuntza politika  
isolatu bat, baizik eta gune orotan isla berezia eta profil zehatza  
izango duen hizkuntza politika bakar, orokor eta iraunkor bat.

## **5. HIZKUNTZA GAITASUNAREN IKUSPEGI KOMUNIKATIBO ETA PRAKTIKOA (PERFORMATIBOA), EZAGUTZAREN NEURKETA ZURRUN TEORIKOTIK HARAGOKOA**

Euskara irakatsi ere egiten ez zuen eskola-sistema batetik abiatu-  
rik, ikasle guztiei euskara irakasten dien eta hala nahi duenak euskaraz  
ikasteko modua eskaintzen duen sistema batera heldu gara hogeita



bost urteotan. Prozesu horretan, euskara gaitasuna frogatzen duten tituluak sortu dira, eta titulu horien erabakigarritasuna gero eta txikiagoa izango da, hizkuntza normalizatzen den hein berean. Izan ere, hezkuntza sistemak berak gaitasun normala bermatuko duen egoera baterantz goaz, eta etorkizuneko egoera horrek tituluen eragina zeharo apalduko du.

Hori dela eta, aztertu beharra dago, era berean, euskararen “lan-merkaturako balioa”: prestakuntza akademikoa euskaraz burutzen duenari prestakuntza hori eskuratzeko irakaskuntza-sistemak eman eta onartu edo aitortu dion euskara-gaitasunetik haragokorik ez litzaioke inori baldintzatzat eskatu beharko lan merkatu publiko nahiz pribatuan sartzeko. Gehenez ere, hizkuntzarekin berarekin zuzenean loturiko zeregin edo lanpostuetan ikusi beharko litzateke zer egin.

Etengabeko prestakuntzaren printzipioa ekarri beharra dago euskararen eremura ere, eta ikuspegi horretatik, hiru faktore lotu behar dira, estu-estu: trebakuntza performatiboa (zeregin zehatz praktikoekin loturiko prestakuntza), erabilera (parametro komunikatiboetan oinarritua) eta erabiltzearen poderioz bakarrik biziraungo duen hizkuntza bat erakargarria egiteko etengabeko ahalegina. Erakargarritasuna, hemen, “berezkotasunaren” funtzioa da; hau da, euskaraz ikasitakoan sistemak, gizarteak alegia, berez ematen duen prestakuntzak, euskara-gaitasuna barne, berez gaitu egiten du ikaslea lan-merkatuan eska daitezkeen konpetentziatarako, eta koherentzia horren eskutik dator, hain zuzen ere, euskarazko irakaskuntzaren eta euskararen erabileraren erakargarritasuna.

Nolanahi ere, ebaluazio irizpideak guztiz-gutztiz eta bakarrik komunikazio irizpideen arabera aplikatu behar dira, eta ez hizkuntzaren ezaguera akademikoarekin, ez baillizateke inolaz ere koherentea euskararen gaurko eta bihar-etziko egoera soziolinguistikoarekin enfasia jakintza “filologikoan” jartzea, latin edo grekera klasikoari

**Etengabeko prestakuntzaren faktoreak:**

- **Trebakuntza praktikoa.**
- **Erabilera.**
- **Erakargarritasuna.**

buruz ari bagina bezala, eta ez erabileran arnas eta bizibide bakarra duen hizkuntza normaldu gabeko bati buruz.

**Euskarara hurbiltzen den oro hartu behar dugu euskalduntzat. Elebidun pasiboak balio sinboliko eta operatibo ikaragarria baitu, euskal hiztunari erabilerara errazten baitio.**

Ikuspegi horretatik, komenigarria litzateke, apika, argitzea nori deitzen diogun, ikuspegi soziolinguistikotik “euskaldun” XXI. mende hasieran. Euskarara hurbildu den oro hartu behar dugu euskalduntzat, nahiz eta hurbiltze horretan maila pasiboraino baino iritsi ez. Garbi dago “euskaldun pasibo” horrek euskal hiztunen elkarteari egiten dion ekarria mugatua dela, baina, mugak eta guzti, bizikidetzaren

balio erantsia dakarkio euskal hiztunen elkarteari, eta, bere xumean, balio sinboliko eta operatibo ikaragarria duen ekarria da hori, bidea zabaltzen baitio elkarte horren hazkundeari.

Horiek horrela, garai batean, eta hoberik otu ezean, erabili ohi ditugun “ia euskaldun” bezalako kontzeptuak alde batera uzteko modukotzat jotzen ditugu gaur: trebetasun handiagoko eta txikiagoko euskaldunak daude, hizkuntza guztien hiztunen artean gertatzen den bezala, bestalde, nahiz eta beharbada ez hain era nabarmenean. Gaur, bestalde, gaitasun mailak identifikatzeko tresna egokia aurkitzen dugu hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoan.

Azken batean, espero dezagun hemendik 25-30 urte barru, tartean gauzak txukun eginez gero behintzat, inork ez diola planteatu beharko bere buruari testuinguru batean edo bestean euskaraz egin ote dezakeen, ingurukoak erdaldun elebakarrak izatearen susmoz edo beldurrez. Eta egitate horrek zedarritzen du, gerora begira, euskararen biziberritzearen, hots, euskal gizarterako desiragarria den elebitasun motaren aurrerabidea.

## 6. ZERTAZ ARI GARA, GIZARTE ELEBIDUNA AIPATZEN DUGUNEAN? MUGAK, ASIMETRIAK, DIGLOSIA ATXIKIGARRIA, EUSKARAREN ARNASGUNEAK: EUSKARAREN BIZIBERRITZEA GIZARTE ELEANIZTUN BATEN IKUSMIRAN

Zer-nolako elebitasuna nahi dugu? Galdera horri erantzuten saiatzerakoan, zer-nolako elebitasuna lor *dezakegun* hartu behar dugu, nahitaez, abiapuntutzat. Hortaz, garbi izan –eta adierazi– behar ditugu euskarak, bere benetako bizitokian –ez hainbaten ametssetako Sekula Betiko Lurraldean–, dituen mugak:

- Ez dago, zorionez, euskal elebakarrik. Hau da, euskal hiztun guztiak elebidunak dira, eta, gainera, bertakoa ere baden beste hizkuntza batean –sendoa, ordea, berau– dira elebidun.
- Euskararen beraren garapen mugatua, bizikide dituen hizkuntzen aldean, urtetan jasans duen zokoratze prozesuarengatik. Era berean, zokoratze prozesu horrek berak euskararen erabilera eta kontsumoaren aurkako hizkuntza ohiturak sortu ditu, eta horrek eragin zuzen-zuzena du euskararen prestigio sozialean.
- Gure errealitate soziolinguistiko askotarikoa, lurraldez lurralde zein lurralde bakoitzaren barnean ere askotarikoa.
- Elebidunak oraindik gutxiengoa izatea.
- Euskal hiztunen gaitasun erlatibo ezberdinek mugatu egiten dute hainbat esparrutan euskara erabiltzeko aukera baliatzea.
- Euskararen eta hizkuntza bizikideen arteko tartea, euskara ikas-teak eskatzen duen ahalegin bereziarengatik.
- Garenaren neurriaren apala.

**Elebitasun lorgarria da abiapuntua: herritar gehienak elebidunak izango dira, segur aski, baina ez maila berean denak eta ez toki guztietan era homogeneoan banatuak.**

Muga horiek gogoan, eta hogeita bost urteko perspektiban, irudikatzen dugun gizartean herritar gehienak elebidunak izango dira, segur aski, baina ez maila berean denak eta ez toki guztietan era homogeneoan banatuak.

Asimetria baterantz goaz, beraz, gizarte elebidun baten helburua posible izango bada, eta asimetria hori bai geografikoa eta baita funtzionala ere izango da. Garbi adierazi dezagun denok –ez da hori ukatzerainoko itsumenik inon ezagutzen– gure baitan

**Asimetria: helburua ez da toki edo alor batean egiten dena bestean ere modu mimetikoan errepikatzea. Inguru bakoitzeko errealitateak abiatzen dena da hizkuntza politika eragingarria.**

garbi dakiguna: helburua ez da toki edo alor batean egiten dena bestean ere modu mimetikoan errepikatzea, baldintzei eta errealitateari muzin eginez, baizik eta toki edota alor bakoitzak eman dezakeena eman dezan lortzea, asmoz eta jakitez, ez gutxiago baina ezta gehiago ere. Gaurko errealitatearen aurreak aski modu garbian erakusten digu atzea nola dantzatu: euskarak eta gaztelaniak funtzio ezberdinak bereganatuko dituzte, nolabaiteko

banaketa funtzional baten arabera, eta beste hainbeste gertatuko da euskarentzat erreklamatzeko ditugun lurraldeei dagokienez: ez da guztietan, inondik inora ere, hiztun, erabiltzaile eta gaitasun maila bera erdietsiko.

Asimetria hau, baina, ez doa, berez, euskararen biziberritzearen kontra, euskararen biziberritzearekikoetan norberaren gogo-asmak errealitatearen eta egingarri denaren tokian jartzearen aurka baizik. Hau da: helburutzat ere onar dezakegu diglosia atxikigarri hori, baldin eta, hizkuntza politika eragingarri eta eragile baten eskutik, euskarari dagozkion esparru eta gune geografikoek behar besteko kalitate eta pisu funtzionala badute.

Hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar ditu. Arnasgune horietan, eta ez beste inon, bilatu beharko du biziberritu nahi den hizkuntzak helduleku nahikorik, bai belaunaldiz belaunaldiko transmisioari, bai hizkuntzaren funtzio komunikati-

boei, bai hizkuntzaren balio erreferentzialari dagokienez. Arnasgune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnasmenei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan.

Aurrekoak dakarrena, ezinbestez, espazio publikoan bi hizkuntzen erabilera arautu beharra da, eta arautze horretan hizkuntza ahulenaren alde egin beharra, beti ere errealitate soziolinguistikoaren arabera eta guztiz garbi izanda diglosiak ez duela biziraupena bermatzen, baina, gurean, diglosiarik gabe, nolabaiteko konpartimentazio funtzionalik gabe, ez dagoela biziraupenik. Eta printzipio hori onartzeak, mende berriaren hasierako hizkuntza politikaren muin-muinean txertatu beharra dagoen progresibotasunaren printzipioa gureganatzea dakar. Ezin baitira denak aldi berean egin, dena gauek goizera egiterik ez dagoen bezala.

**D**iglosiak ez du biziraupena bermatzen, baina diglosiarik gabe ez dago biziraupenik. Diglosiak atxikigarria, euskararen aldekoa, izan behar du.

Ez da, alabaina, euskararen arnasmuneetara mugatzen euskara biziberritzeko ahalegina. Perspektiba horretan, elebakartasunaren zakua txikiagotzeko eta elebitasunarena handiagotzeko estrategian eragingarri izatea da kontua, eta garbi izan dezagun horrexek izan behar duela neurri eta politika zehatzak onartzeko edo baztertzeke galbahe bakarra: hizkuntzen eta hiztunen bizikidetzaren eta euskararen erabilera areagotzearen aldeko neurri eta politika eragingarriak izatea. Ez dago, kontu honetan, beste inon oinarrituriko zilegitasunik.

Badira norabide horretan bete-betean doazen bi eginkizun, atzeraezinak izateagatik txosten honetan tokirik erreklamatzeko dutenak: 1) esparru ez formaletan (etxean, auzoan, lagunartean, e.a.) gauzatzen den euskararen erabilera ez formala indartzea, euskaldun zaharrena bezala euskaldun berriena ere; 2) euskaldun berriaren ekarpenari zor zaion onespenezko soziala aitortzea.

**L**ehentasunezko trataera garbia eman behar zaie euskarazko arnaguneei. Hizkuntza politika, haatik, ez da euskararen arnaguneetara mugatu behar.

Eta, aurrekoarekin estu lotuta, herri-aginteeek, gizarte eragileekin lankidetzan, eleaniztasun eragingarri baten aldeko konzientzia edo kultura kolektibo berria erein eta elikatu beharko dute, lehentasunez hau ere: ahalik eta elebakar gehienak pauso bat euskararantz ematera bultza ditzan konpromisoa aintzat hartzen duen kultura kolektiboa. Alor

horretan, nolana ere, garbi dago erantzukizuna norbanakoarena dela, eta ez dela ordezkagarria. Norbanakoaren borondatea eta jarrera dira erabakigarriak, eta horiek norberaren erabaki librearen esku daude.

Laburbilduz, norabide paralelotan doazen bi ahalegin bateratu eta orekatu behar dira, aipatzen ari garen elebitasun asimetriko horretan euskararen aldeko gerta dadin diglosia berreskuratze alderia: ikuspegi geografikoari dagokionez, euskararentzat bera nagusi izango den erabilera- eta transmisio-eremuak arnaguneak zaindu, sortu eta indartzea; eta ikuspegi funtzionalari dagokionez, eta hizkuntzen arteko banaketa funtzionala aldeztu aurretik onartuta, euskarari gero eta funtzio gehiagotarako bidea irekitzea.

Modu horretan, helburu bikoitz hori lortzeko langintzan eta, hein berean, ameskeriari eta boluntarismoari ateak itxiz alegia, gure egingo dugu Mitxelena maisuak aspaldian luzatu zigun oharra: "Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela, ez gaitezela ghettoaren infernuan eror. Hizkuntza integrazioa beste ezein bezain beharrezkoa dugu".

## **7. HERRI-ADMINISTRAZIOA, HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ZAINZAN EREDU**

Konstituzio Auzitegiak babestutako jokabidea da, jakina denez, EAEko Administrazio publikoetako lanpostuetan jarduteko gaztelaniarekin batera Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala den euskararen ezagutza baldintzat eskatu edota merituztat baloratzea, lanpostuaren eginkizunak kontuan hartuta. Jokabide horren iturburua, hain zuzen, EAEko Administrazio publikoei egotzi beharreko erantzukizun garbi batean dago: Administrazio publikoak eredugarria izan behar du herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari dagokionez.

Gaur egun, EAEko Administrazio orokorreko lanpostuen %44an baldintza da euskaraz jakitea, maila batean bederen, eta gainerako %56an baloratu egiten da euskaraz jakitea. Ehuneko horiek ez dira homogeneoak administrazio-gune guztietan: horrela, hezkuntza sistema publikoan, irakasleen %80 da irakaskuntza euskaraz eman ahal izateko beharrezko den hizkuntza-eskakizuna derrigorrez egiaztatu beharra duten lanpostuen kopurua, Ertzaintzan %40,74 eta Osakidetzan %15,52 (azken honetan, bide batez esanda, %15,52 hori ez dagokie medikuei, baizik eta medikuen, erizainen eta gainerako langileen osotasunari, eta medikuena da, hain zuzen ere, derrigortasun indize txikiena duen multzoa. Horrez gain, eta gai honen inguruan sarri-sarri erabili ohi den manipulazioak besterik iradoki nahi balu ere, Osakidetzan ez da sekulan lanpostu bat bete gabe utzi euskararen ezaguera ez egiaztatzeagatik). Esan behar da, halaber, 2006. urtea izan dela Osakidetzak euskara beharrezko gisa eskatu duen lehen aldia. Urte horretan, 3.000 lanpostu atera zituen Osakidetzak eskaintza publikora, eta horietatik %20an jarri zuen euskaraz jakitea beharrezko gisa.

Bestalde, eta Osakidetzan, hezkuntza sistema eta Ertzaintza alde batera utzita, 12.000 langilek egiaztatu du, honezkero, hizkuntza-eskakizuna: datu honek ematen du egin den ahaleginaren eta ahalegin horren emaitzen benetako neurria, nahiz egia ere den eska-

kizun horren zinezko banaketak gehiago ukitu duela lan-merkatura lehenbiziko aldiz sartzen ari den jendearen kolektiboa.

Hala ere, eta honetan datza zuzendu beharreko arazoa, hutsune edo gabezia garbi bat geratu da agerian: 12.000 langilek hizkuntza-eskakizuna egiazta dezaten eginiko eginahalak ez du jarraipen eta loturarik izan euskararen erabilerarekin. Horrek desoreka bat sortzen du ezaguera eta erabileraren artean, eta distortsio horrek atxikimendurako bidea oztopatu edota moztu egiten du. Euskararen

**T**okian tokiko herri-administrazioen ezaugarriak kontuan hartuta, ezagutza teorikoa baino, hauexek dira kontuan hartu beharrekoak:

- **Hiztunaren gaitasun komunikatiboa.**
- **Lanpostuaren eginkizunak.**
- **Hizkuntzaren erabilera praktikoa.**

ezagutza egiaztatu duten langileek euskara lan hizkuntzatzat erabili behar dute, eta hori bi hizkuntza ofizialen erabilera arautuko duen inguru baten barruan lortu behar da. Euskararen erabilera arautzerakoan, jakina, Administrazio bakoitzeko langileen arteko euskal hiztunen kopurua eta tokian tokiko ezaugarri demolin-guistikoak kontuan hartu beharra dago, honetan ere ezin baita molde uniforme batez jokatu, hau da, Administrazio bakoitza kokatzen den gunearen ezaugarriak aintzat hartu gabe. Hizkuntza-eskakizuna erabilerarekin lotu behar

da, beraz, bai hizkuntza-eskakizuna baldintzatzen edo merezimentuztat egiaztatzerakoan, bai hizkuntza-eskakizunaren ebaluazio irizpide eta prozedurei dagokienez ere. Honetan ere, herritarren hizkuntza gaitasuna egiaztatzeari buruz aipatutakoa berretsi beharra dago: irizpide performatiboak erabili behar dira ebaluazioan, ezagutza teorikoak baino gehiago, hiztunaren gaitasun komunikatiboa, lanpostuaren eginkizunak eta hizkuntzaren erabilera praktikoa tinko uztartuz.

Nolanahi ere, lehenetsunetan lehena izango da toki guztietako Administrazio guztiek langile elebidunak izatea jendaurreko lehen harreman zuzena gauzatzen den tokietan. Hori gabe, ez dago hizkuntza eskubideen babesaz hitz egiterik, huts egingo bailitzateke hizkuntza aukeraren mailarik oinarrizkoenean: herritarrak Adminis-



trazioarekiko harremanetarako aukeratzen duen hizkuntza ofiziala erabiltzekoa.

Aparteko gogoeta eskatzen du, atal honetan, EAEn kokatutako Estatuko Administrazioaren eta Justizia Administrazioaren jokabideak: ez batean ez bestean hartu da, hogeita bost urteotan, neurri eragingarri nahikorik erabilera-eremu horietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, eta hutsaren hurrengo da euskararen presentzia esparru horietan. Legeak, ordea, Administrazio guztiak behartzen ditu, eta ez litzateke inolaz ere onargarria administrazio-gune horiek beste hogeita bost urte pasatzea euskal gizarteak bere buruari ematen dion hizkuntza politikari bizkar emanda.

## **8. EUSKALGINTZA PUBLIKO ETA PRIBATUAREN ARTEKO LANKIDETZA, BAKOITZAREN JARDUN- ETA ERAGIN-EREMUEN ONESPENEAN ETA ELKARREN ERRESPECTUAN OINARRITUA ETA OSAGARRITASUN PRINTZPIOAREN ARABERAKOA**

Lehenik eta behin, aitor dezagun “euskalgintza” izenez ezagutzen duguna oso zaku zabala dela, eta bertan asmoz eta egituraz batere homogeenak ez diren zuzenbide pribatu nahiz publikoko erakunde, elkarte, enpresa, mugimendu, kolektibo eta abar sartzen direla. Horietako batzuk, euskararen aldeko kultura kolektiboen ideiak, ekarpenak, proiektuak, negozioak eta lorpenak agerian dituzten talde, enpresa eta elkarteak dira, baina horien aldean badira euskara lehia politikoaren aitzakia edota osagai gisa hartu dutenak ere. Ezin, beraz, denei balio bera aitortu euskalgintzaren esparru zabalean. Euskarak, argi dago, lehen multzoko guztiak behar ditu (euskararen aldeko kultura kolektiboan ideiak, ekarpenak, proiektuak, negozioak eta lorpenak agerian dituzten talde, enpresa eta elkarteak, alegia), eta ez du bigarren multzokoen batere premiarik. Are gehiago, sekulako kaltea egiten diote euskararen biziberritzeari eta langintza horretan zintzo ari direnei euskara borroka politikarako ikurtzat baliatzen dutenek.

Herri-aginteak, gizarte mugimenduak, elkarteak, enpresak, hau da, azpijokorik gabe ari diren guztiak behar ditu euskarak, baina hori bezain garbi ulertu behar dugu denok horien guztien zeregin eta interesak ez direla berdinak, ez eta, batzuetan, harmonikoak ere. Nolanahi ere den, zalantza guztien gainetik utzi beharra dago, honetaz ari garenez, funtsezko abiapuntu demokratikoa: herri-aginteak dira interes publikoa ordezkatzen dutenak, haiek baitira herritarren eta bere ordezkarien kontrolpean daudenak.

**H**erri-aginteei dagokie jarraitu beharreko hizkuntza politika diseinatzea eta baliabidez hornitzea; beraz, ez da onargarri arlo pribatuko mugimenduek lehentasunak finkatzea.

Errealitate horrekin erabat bateraezina da gauditutako garaietatik datorkigun mito bat: euskararen aldeko lana erresistentzia mugimendu bat dela pentsarazten duena, hain zuzen, eta hiperkritizismo suntsitzailea sustatzen duena. Mito horri oraindik ere eusten diotenen artean joera nabarmena dago herri-aginteei euskararekiko etsaigoa edota, gutxienez, zabarkeria edo lasakeria egozteko. Eta, jakina,

hortik euskara alderdikieriaz erabiltzera ez dago inolako tarterik.

Bada, beraz, astindu beharreko inertziarik, bai Administrazioan, jakina, baita herri mugimenduetan ere, eta baita ere bien arteko harremanetan, eta horretarako lehenbiziko urratsa da bakoitzaren zeregina eta eremua osagarritasunaren printzipioaren arabera banatzea. Ez, ordea, nolabaiteko irizpide “berdintzaile” baten arabera. Ez da onargarria, adibidez, herri-aginteei diseinatu, baliabidez hornitu eta jarraitu beharreko hizkuntza politikaren lehentasunak arlo pribatuko mugimendu batek, zeinahi dela ere, finkatzea.

Zein dira, hortaz, euskalgintza pribatua osatzen duten gizarte mugimendu, elkarte eta enpresen jarduera-eremuak, osagarritasunaren printzipioaren arabera? Hona hemen nagusiak: hizkuntza plangintzan aurreikusitakoak mamitzeko herri-aginteekin lankidetzan aritzea; euskara biziberritzeko prozesuan herritarren atxikimendua landu eta areagotzea; hizkuntza politikaren eragingarritasuna hobetzeko proposamenak egitea.

Herri-aginteeek, beren aldetik, euskalgintza pribatuarekiko lankidetzaren etengabea bultzatu beharko dute, eta ekimen eta jarduerak kritikatu eta zuzentzeko komunikazio-ildoak mantentzeko konpromisoari eutsi beharko diote. Herri-aginteen eta askotariko euskalgintza pribatuaren arteko lankidetzak bide luzea urratu du azken hamarkadetan. Komenigarria ez ezik beharrezkoa ere bada bide hori sendotzea eta, ahal den neurrian, indarberritzea, beti ere, aurrez esanda utzi dugun moduan, bakoitzaren jarduerak esparruak errespetatuz eta herritarren euskararekiko atxikimendu librearen indartzeko helburuarekin.

Lankidetzaren bermatu beharra dago, beraz, alde bietatik, eta, horretarako, ezinbesteko abiapuntua da euskalgintza guztien (instituzionala, soziala, politikoa, kulturala) zeregina elkarri aitortzea eta errespetatzea. Denak dira euskalgintza, den-denak dira beharrezkoak.

**O**rain arteko lankidetzari eustearren, urrats garrantzitsuak litzateke euskalgintza publiko zein pribatuko eragileen zeregina eta eremua osagarritasunaren printzipioaren arabera banatzea.

## **9. EUSKALDUN BERRIA EUSKAL HIZTUN IZATEKO AUKERA OPARO ERAGINGARRIA, FRUSTRAZIOAREN AURKAKO TXERTOA**

Euskaldun berriak sortzea onuragarria da eta horri ekin diogu, nagusiki, hogeita bost urteotan, euskararen ezagutza areagotzeko, eta ez, ordea, euskal hiztunen komunitatea sendotzeko. XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren helburuak ezin du izan, soilik, euskaldunak sortzea, baizik eta ahalik eta euskaldun gehienak, ahalik eta egokiera, toki eta esparru gehienetan euskal hiztun bihurtzea, erabilera dela medio. Bestela, begi-bistakoa da arriskua: gero eta euskaldun gehiago, eta, neurri berean, euskal hiztun-komunitate gero eta ahulagoa.

Honaxe bada, mende berriko hizkuntza politikak erantzunik gabe utzi ezin duen galdera: nola lortu euskal hiztunen erkidego

sendo bat? Abiapuntua ez dugu aldekoa: euskarak ez du sekula izango beste hizkuntza batzuek duten barne indarra hainbat alorre-tan (aisialdia, lana, posizio soziala...); gurean, bizi-indar afektiboa da balio nagusia, eta balio horretaz jabetzeko gakoa, borondatea eta barne motibazioa dira, horiek baitira, azken batean, euskara esparru ez-formal, pribatu eta afektiboenetara helarazteko motor indartsuenak.

Euskal hiztun sare zabal sendoak behar ditugu, beraz. Euskara naturaltasun, malgutasun eta ohikotasunez erabiliko duten sare

sozial biziak, informazio eta komunikazioaren teknologien laguntzaz hizkuntz ghettoak gaindituko dituztenak. Horrela, bere burua euskalduntzeko behar den ahalegin ez batere urria egin duenak praktikan bizi ahal izango ditu elebitasunaren abantailak. Onespen praktiko hori izango baitu, azken batean, atxikimendu sakonerako zubi.

Aldi berean, kontzientzia soziala mobilizatu beharko da, euskaldun berriaren figurak izan dezan merezi eta behar duen gizarte onespen eta prestigioa.

Ez dira hor amaitzen, hala ere, euskal hiztun berriarekiko kontuan hartzekoak. Hor dugu, adibidez, behera bota beharreko mito zaharkitu bezain kaltegarri bat: euskalduntzen denak, euskararen mundu erreferentzial osoa bereganatu behar duela. Zein dira, baina, gune erdaldunean bizi direnen mundu erreferentziala euskarara ekartzeko aukerak? Gutxi, oso, lehen une batean bederen. Arindu behar dugu euskal hiztun berri bilakatzeko asmoz ikasketa prozesuan barrena abiatzen dena euskararen mundu erreferentziala bereganatzeko obligazioaz. Ez baita hizkuntza –ez euskara ez beste inongo hizkuntzarik– mundu afektibo bat daukana: pertsonak gara mundu afektiboa daukagunak, eta mundu afektibo horri dagozkionak adierazterakoan, mundu afektibo horri erantsitako hizkuntza da naturaltasun handienaz gutariko bakoitzak erabiliko duena.

## Helburu bikoitza:

- Euskal hiztun berriak sortzea.

- Euskal hiztunen artean erabilera esparruak zabaltzea eta indartzea.

Identitate kultural eta afektibo ugari bizi dira elkarren ondoan gure gizartean (eta gizarte guztietan), baina baita ere gutariko bakoitzaren baitan, gune irekietan bizi garenon kasuan bederen. Hizkuntza batetik besterako zubia pasatzeko pasaportearen beharra bertan behera utzi beharra dago, malgutasunaren alde, malgutasun horrek lasaitasuna ekar baitezake, eta lasaitasunak, erabilerarako erraztasuna.

**Erabilera erraztearren, hizkuntza batetik besterako zubia pasatzeko malgutasunaren aldeko apustua egin beharra dago, hiztun berriari identitate-edo kultur-bidesaririk ordainarazi gabe.**

## **10. NORA GOAZ? EUSKAL GIZARTEAREN 20-25 URTE BARRUKO HIZKUNTZA ERREALitatea IRUDIKATUZ**

Funtsean, eta ezaugarri nagusi gisa, gure gizartean bizikide diren hizkuntzen (ingelesa barne) arteko mugak malguago eta bigunagoak izango dira; batez ere, nahiz ez bakarrik, nagusi ditugun euskara eta gaztelaniaren artekoak, baina baita ingelesarekikoak ere. Gaur baino askoz naturaltasun handiagoz biziko ditugu hizkuntzen arteko banaketa funtzional eta geografikoak, eta garbi ikusiko ditugu, praktikan eta erabilera datuetan, diglosia atxikigarriaren onurak.

Geratuko da erdaldun elebakarrik, jakina, baina ez euskal hiztunaren komunikazio-jarduna era esanguratsuan oztopatzeko moduko kopuruan. Aitzitik, 50 urtetik beherako herritar guztiak euskal hiztunak edo, gutxienez, euskaldun pasiboak izango dira, eta elebitasunaren orokortze horri esker, euskararen erabilera esparru geografiko eta funtzional berrietara hedatuko da. Euskararen erabilera, beraz, era guztiz nabarmenean haziko da, salbu eta, seguruenera, gaur egun erdaldunen diren guneetan. Erabileraren hazkunde hori hizkuntzaren esparru formaletan gauzatuko da erarik argienean.

**50 urtetik beherako biztanleen artean elebitasuna orokortuko denez, euskararen erabilera esparru geografiko eta funtzional berrietara hedatuko da. Hein berean, euskarak arnagune gehiago eta sendoagoak izango ditu.**

Aurrekoarekin batera, euskarak arnasmune gehiago, trinkoago eta sendoagoak izango ditu, belaunez belauneko transmisioaren eta hizkuntzaren beraren adierazkortasunaren mesedetan.

Erabileraren hazkundearen ondorioz –eta, aldi berean, haren pizgarri gisa–, euskarazko kultura ekoizpen eta kontsumoa nabarmen haziko dira, oraindik ere erdara nagusi izaten jarraituko duen kultura merkatuaren barnean. Honekin lotuta, hautemangarriagoa izango da euskal sorkuntzaren eta kultura industrien presentzia nazioarteko zirkuituetan.

### III. LAN-ILDO NAGUSIAK

#### 1. ERABILERA, ERRONKA NAGUSIA

Alferrikakoa litzateke hizkuntza eskubideen inguruko diskurtsoa, baita alor teorikoan osa daitekeen biribilena izanagatik ere, baldin eta diskurtso hori praxiari buruzko perspektiba eragingarrian kokatuko ez balitz. Eta erabileraren perspektiba da, noski, hizkuntza eskubideen inguruko diskurtsoa eduki eragingarriz betetzen duena.

Izan ere, erabileraren bi zutabe nagusietariko bat da hizkuntza eskubideen aitortpena eta babesa. Beste zutabea, jakina, garenaren neurriak ematen duen eskala dugu. Bi zutabe horiek, ordea, ez dira burujabeak; aitzitik, oso norabide zehatzean doan bektore jakin baten lotzen ditu: garenaren neurriak ematen digun eskalak eta hortik ondorioztatzen diren mugak baldintzatu egiten gaituzte hizkuntza eskubideak gauzatzeko. Era berean, hizkuntza eskubideak ez dira, argi dago, herritarrak dituen eskubide bakarrak, eta, eskubide guztien arteko dialektikan normala denez, elkar baldintzatzen dute eta, hainbatetan, baita mugatzen ere.

Adibidez, elebidun kopuru urriko eskualde batean euskal hiztun batek arazoak izan ditzake tokian tokiko Administrazioaren aurrean hainbat gestio euskaraz egiterakoan, bai orain, bai, seguruenera, 20-25 urte barru ere, herritarrak egin nahi duen gestioak jendaurreko harrera-lerrotik haragoko esku hartzea eskatzen badu tokian tokiko Administrazioaren al-

#### **E**rabileraren hiru zutabeak:

- **Hizkuntza eskubideen aitortpena eta babesa.**
- **Euskararen eta euskal kulturaren erakargarritasuna.**
- **Garenaren neurriak ematen duen eskala.**

detik bederen. Era berean, baina guztiz alderantzizko norabidean, euskararen arnasmune batean bizi den elebakar batek berriaz eskatu behar izan lezake harrera egitea eta izapiderean berri gaztelaniaz ematea, dagokion administrazio-gunearen ohiko lan eta zerbitzu hizkuntza euskara baldin bada, eta kasuistika hau areagotu egingo da heldu diren 20-25 urteen buruan.

## **E**rabileraren aldeko lanak muga jakin batzuk dauzka:

- Gure errealitatetik datozenak.

- Herritarren eskubideen arteko harmonizatzeak berez dakartzanak.

Beste enbor bateko ezpala ekarrita adibideen zerrenda honetara, beste ikuspegi batetik begiratu ahal izango diogu eskubideen eta betebeharren arteko dialektikaren ondorioz sortzen den talkari: eman dezagun guraso batzuek ez dutela nahi beren seme edo alaba hezkuntza sistemak euskaldundu dezan, nolabaiteko hizkuntza-eragozpenak hartaratuta, eta euskararik gabeko –edota ahalik eta euskara gutxieneko– irakaskuntza eskatzen dute-

la, bere seme edo alabak irakaskuntzan erabiliko duen hizkuntza aukeratzeko eskubidea argudiatuz.

Auzi honi dagokionez, hizkuntza ofizialen sistemak oso oinarri argiak ditu gure Autonomia Erkidegoan. Oinarri horiek, gainera, adostasun zabala eta sendoa dute; ezarri zirenetik hona indartu den adostasuna. Herritarrak hizkuntza ofizialen artean nahi duena aukeratzeko duen askatasuna da, bide horretan, ardatz nagusia. Baina askatasun horri muga bat ezarri zitzaion derrigorrezko hezkuntzan: ikasle guztiek ikasi behar dute, ezinbestez, aukeratu ez duten beste hizkuntza ofiziala ere, derrigorrezko hezkuntza amaitzean hizkuntza bietan izan dezaten “jakintza praktiko nahikoa”. Hau, beraz, ikasle guztien betebeharra da. Aukera hau funtsezkoa da, gizartearen kohesioa eta, hizkuntza kontuetan ere, ikasleen aukera berdintasuna segurtatzea baititu helburu, guztiek duten hizkuntzaren askatasuna inolaz ere urratu gabe. Herritarren artean elkar ulertzeko bideak zabaltzea da kohesioaren oinarririk sendoena. Hizkuntza erkidegoen arteko bereizketa oinarri duten herrialde batzuetan, Suitzan kasu,



hau da hartu berri duten bidea. Horrela, gizar-tearen kohesioan izan dituzten ondorio kaltegarriak gainditu nahian. Guk ezin dugu bide horretan eskuratu duguna galbidean ipini.

Badira, beraz, muga garbiak, eta inongo boluntarismok gaindituko ez dituen mugak izateaz aparte, hizkuntza politika moderno eta errealtateari egokitu bat diseinatzerakoan oso kontuan hartzekoak dira, arrakasta, eta ez inolako porrot “heroikoa”, baldin bada helburua.

Gogora ditzagun, labur bada ere, aurreko atalean zerrendatu ditugun muga horiek:

- Ez dago euskal elebakarrik, euskarak bizikide duen hizkuntza oso da ahaltsua.
- Euskararen beraren garapen mugatua, eta zokoratze prozesuaren ondoriozko euskararen erabilera eta kontsumoaren aurkako hizkuntza ohiturak.
- Gure errealtate soziolinguistiko askotarikoa.
- Elebidunak oraindik gutxiengoa izatea.
- Euskal hiztunen gaitasun erlatibo ezberdinak.
- Euskararen eta hizkuntza bizikideen arteko tartea.
- Garenaren neurriaren apala.

Eta gaineratu diezazkiegun geure errealtatetik datozen muga horiei herritarren eskubideen arteko harmonizatzek berez dakartzanak, eta zentzuzko abiapuntua jarri ahal izango diogu XXI. mende hasierako hizkuntza politikak erronka nagusitzat izango duen euskararen erabileraren aldeko lanari.

Kontua da, azken batean, erabileraren auzia ez dela joko-zelai teoriko batean erabakiko, baizik eta eguneroko praktika planifikatuarenean. Arautu beharko da, beraz eta ezinbestez, esparru pu-

## **E**rabileraren auzian kontuan hartu beharreko faktoreak:

- **Esparru publikoko hizkuntza ofizialen erabilera arautu beharra.**
- **Hizkuntza politika ez neutrala.**
- **Progresibotasuna, adostasuna eta eragingarritasuna.**

**Euskararentzat gune eta funtzio zehatzak zaindu/sendotu/hedatu/ortu behar dira, erabilera helburu eskuragarrien arabera hobetzeko.**

blikoko hizkuntza ofizialen erabilera, ezin baita inolaz ere eskari-eskaintzaren legeen baldintzapean utzi euskararen erabileraren etorkizuna. Hizkuntza politika ez-neutral bat da, beraz, diseinatu beharko dena, *euskarakalte* izango litzatekeen *laissez-faire* izaerako politikari zirikiturik utziko ez diona, eta, aldi berean, progresibotasuna, adostasuna eta eragingarritasuna urrezko arautzat hartuko dituen, betiko alboratuz boluntarismoa, neurritz gaindiko presak, lasaieria, maximalismoa eta ameskeriak.

Eta euskararen erabileraren aldeko hizkuntza politika eragingarri baten muin-muinean, irizpide garbi bat txertatu beharra dago, lehentasunen gidari nagusi: euskararentzat gune eta funtzio zehatzak zaindu/sendotu/hedatu/ortu behar dira, aldez aurretik onartuta gure ezaugarri demolingüistikoak eta soziolingüistikoak definitzen duten errealitatetik abiatzen garela, errealitate hori hobetzeko hain zuzen ere, jakina, baina helburu eskuragarrien arabera hobetzeko, eta ez euskara ikur politiko soilaren tokian jartzen dutenei jarraiki bizikidetzeta eta gizarte kohesioa intransigentziaren labarrean amiltzeko.

**Bi hizkuntza ofizialen banaketa onartzetik eta sustatzetik etorriko zaizkio euskarari transmisioa eta erreferentzialtasuna.**

Ezin diegu belaunaldi gazteei esan, are gutxiago elebakartasunetik euskararantz ahalegin handiz datozen herritarrei, euskararen lurralde osorako hizkuntza politika uniformearen eraikitzeke asmoa dugula, euskal hiztunak %100ean euskaraz bizi ahal izan daitezen egokiera, toki eta zeregin orotan. Geure buruari eta haiei zintzotasuna zor diegunez, garbi azaldu behar dugu XXI. mende hasierako hizkuntza politika demokratiko eta zuhur baten gako nagusia EAEko bi hizkuntza ofizialen arteko funtzio eta, neurri batean bederen, gune geografikoen banaketa onartzea eta sustatzea dela, banaketa horretatik etorriko baitzaio euskarari, hain zuzen ere, guztiz ezinbestekoak dituen belaunez belauneko transmisioaren eta erreferentzialtasun sozialaren giltza.

Ez da, jakina, “denak ala inor ez, dena ala ezer ez” lelotzat hartuta eraiki daitekeen hizkuntza politika; bai, ordea, “amets eroak baztertuz bertan, sasi zikinak behingoz erreta” taiutu beharrekoa. Hori baita gaur arteko ahalegin oparoak eskatzen duen jarraipena.

## **2. ELEANIZTASUNARI BURUZKO IRIZPIDE FUNTZIONAL BERRIAREN ARABERAKO LAN-ILDO NAGUSIAK**

### **A. Euskarazko kultura ekoizpena eta merkatua**

- Kalitateak eta kalitatean oinarrituriko arriskuak izan behar dute herri-aginteen iparra, euskal kulturagintza babesterakoan. Beraz, kultura industrien kalitatea, arriskua eta barruko nahiz kanpoko merkatuetarako proiektzioa era egoki eta fidagarrian neurtzeko adierazle-sistema landu beharko da, dagokion ebaluazioa oinarritzeko.
- Euskal kultura sistema suspertzeko politika publikoek kontsumoa areagotzea izan behar dute jomuga nagusi. Merkatuaren garapena eta hazkundera modu naturalean gauzatu behar dira, euskararen ezagutzarekiko era paraleloan, eta inguruko kultura merkatuekiko modu ahalik eta koherenteenean. Helburua, beraz, ez da sekula izango betiereko diru-laguntza sistema bati eustea, baizik eta morrontza arriskuetatik urrundu eta normal-kuntzak zein lehiakortasunak gidaturiko babes publiko askatzaille bat eratzea. Hala ere, ezin da merkatuaren zeregina neurritz gaindi balioetsi, guztiz premiazkoak izango baitira, beti, goi mailako kalitatea duten ekoizpenak, eta herri-aginteen zeregin berezkotzat hartu behar da horrelakoak babestea eta bultzatzea, baita merkatuaren harrerak itxuraz justifika lezakeenetik haraindi ere. Ez baita ahaztu behar kultur erreferentzialtasuna dela,

## **E**torkizunerako erronkak:

- **Merkatuetarako proiektzioa neurtzeko adierazle-sistema lantzea.**
- **Merkatuaren garapena kalitatearekin uztartzea.**
- **Kontsumoa hedatzea, mimetismoak saihestuz eta esparru berriak zabalduz.**
- **Marketin-teknikak aztertu eta bideratzea.**

hain zuzen, hizkuntzarekiko atxikimenduaren pizgarrikeria eragingarrietariko bat.

- Eskaintza eta kontsumoaren hazkundean, produktuen dibertsifikatzeari ere erreparatu behar zaio, kontsumoa ahalik eta esparru gehienetara hedatzeko. Nolanahi ere, uxatu behar da helburuen multzotik “euskaraz ez dagoelako” arrazoi soiltzat zerbait ekoiztera urtetan eta urtetan eraman gaituen konplexua. Kontuan hartu beharra dago, batetik, babes publikoak ezin duela euskal kultura ekoizpena merkatuaren bideetatik urrundu, eta, bestetik,

heldu diren 20-25 urteen buruan euskararen aldekoen gerta litekeen hipotesi demolingüistiko eta soziolingüistikoan ere, euskal kultura kontsumitzaileen masa kritikoak ez du justifikatuko den-dena euskaraz ere ekoizteak eskatuko lukeen ahalegina. Ahalegina justifika dezakeena da, ordea, euskaraz dagoenak harrera egokia bilatzea kontsumitzaileen aldetik, eta kontsumo-esparruak ausardi zuzunarekin zabalduz joatea.

- Euskarazko kultura ekoizpenerako egokiak gerta daitezkeen marketin-teknikak aztertu eta bideratu behar dira.

## **B. Ezagutza areagotzea eta euskararen arnasguneak zaintzea: hizkuntza politika orekatu baten oinarriak**

- Euskaldun gehiago sortzeko ahalegina estu uztartuta doa eremu euskaldunak zaintzearekin, hala nola euskararentzat eremu funtzional berriak, tokian tokiko beharrek lotuak, irabaztearekin. Horrela jokatu ezean, bertan genduko ghettoak sortzeko arriskua.
- Euskal herritar elebidunok pauso bat eman behar dugu euskararen alde, erabilerari dagokionez, gu baikara pauso hori eman

dezakegun bakarrak. Erantzukizun hori gutariko norberarena da, eta ezin dugu beste inoren bizkar utzi, euskararantz urrats bat eman beharra duten elebakarren kasuan bezalaxe. Ez gehiago, ez gutxiago.

- Inoiz baino gehiago dago euskararen etorkizuna geure esku, herritarren borondate eta jarreraren esku, herritarren askatasunaren esku, alegia. Erosoagoa da, hizkuntza kontuetan ere, nahikerietan murgildu eta norberaren ezintasunen zama eta erantzukizuna hirugarren baten bizkar jartzea, eta norberaren ajeei bizkarra erakustea. Baina esan dezagun, gure iritzian behinik behin, gaurkotasun eta egokitasun erabatekoak dituela Joxanton Artzek maisuki idatzitako hark: “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenez ikasten ez dutelako, dakitenez hitz egiten ez dutelako baizik”.
- Eremu honetan, bestalde, oso da garrantzitsua herri-aginteen eta gizarte mugimenduen arteko lankidetzak, euskararen aldeko konpromisoaren kontzientzia soziala edo kultura kolektiboa hedatzeari begira.
- Gaztelaniak hainbat toki eta funtziotan duen (eta izango duen) nagusitasuna onartzearekin batera, euskarari ere esleitu beharko zaizkio beste hainbat toki eta funtzio, ohikotasunez erabiliala izateko. Banakuntza hori, jakina, tokian tokiko eta esparru funtzional bakoitzaren errealitate demolinguistiko eta soziolinguistikoaren ezaugarrien arabera mamitu beharko da. Ez baita kontu bera, adibidez, Urolako udal batean eta Errioxako Guardiakoan gauzatu daitekeen, eta beraz diseina daitekeen, hizkuntza politika herritarren harrerari eta izapideen jarraipenari dagokienez; kontu bera ez den bezala, eman dezagun, bateko eta besteko osasun asistentzia primarioan euskarak izan dezakeen/behar duen tokia eta, beraz, bateko eta besteko lanpostuak betetzerakoan ezarri beharreko hizkuntza irizpideak.

**Erabileraren aldeko pausoa elebidunon erantzukizuna, euskarara hurbiltzea elebakarrarena den bezala.**

### C. Progresibotasuna eta erritmo aniztasuna, gizarte adostasunerako zubi

- Euskararen gaurko egoeratik gizarte elebidun (areago, eleaniz-tun) baterantz daraman hizkuntza politika batek, ezinbestez kokatu behar du bere bihotzean progresibotasunaren kontzep-tua, eta, horrekin batera, erritmo ezberdinak bere baitan onar-tzeko jarrera garbia. Progresibotasunak ez du esan nahi, noski, ez geldotasuna, eta are gutxiago gehiegizko bizkortasuna. Era berean, erritmo aniztasunak ez du esan nahi toki edo erabilera-eremu ba-tean azkar (edo azkarregi) eta beste batzue-tan astiro (edo astiroegi) ibiltzea. Aitzitik, pro-gresibotasunaren eta erritmo aniztasunaren filosofia egokitasunaren zutabeen bermatzen da, eta egokitasun horren heldulekuak dira, batetik, egoera soziolinguistikoa, eta, beste-tik, herritarren (eta haien ordezkarien) arteko adostasun zabala. Nolanahi ere, progresibotasunak eta erritmo aniztasunak aurrerabidea izan behar dute beti helburu; ezin da progresibotasunaren izenean onartu euskararen erabilera, apurka-apurka bada ere, aurrera ez daraman politikarik. Era be-rean, ez litzateke onargarria izango aurrerabide hori leku eta erabilera-eremu guztietan apurka-apurka gauzatzea, bizkorrago joateko baldintzak betetzen dituzten eremuetan balaztari eten-gabe sakatuz.
- Progresibotasunaren aplikazio berezi eta, aldi berean, guztiz garrantzitsua mamitu beharra dago haur eta gazteen eskolaz kanpoko jardueretan (taldeko nahiz bakarkako aisialdia, mu-sika, udalekuak, kirola...), esparru ez-formal horietan euskaraz-ko mintza-jarduna areagotzeko.

**P**rogresibotasuna egokitasunean bermatzen da. Egokitasun horrek bi helduleku ditu:

- Egoera soziolinguistikoa.
- Herritarren (eta haien ordezkarien) arteko adostasun zabala.

## D. Euskararen berezko guneak, aurrerabiderako ezinbesteko baldintza

- Euskara biziberritzeak esan nahi du euskarak funtzio guztietarako irismena lortzea (esparru formaletan bezala, esparru ez formaletan ere). Nolanahi ere, komeni da progresibotasunaren kontzeptuari buruzkoetan adierazitakoa hemen ere gogoraraztea: dena une batetik bestera eta aldi berean egiterik ez dagoenez, aukeratu eta lehenetsi behar dira esparruak, inguruko eta errealtateen ezaugarrien arabera (kontzentrazio demolinguistikoa, adin tarteen hizkuntz ezaugarriak...), euskararen bizitasun soziolinguistikorik handiena erakusten dutenak aukeratzearren. Beraz, gerta daiteke hizkuntzak ere esparruen arabera banatzea; edo, alderantziz, esparruak hizkuntzen arabera, eta horiek gertatzea aldez aurretik onetsi beharko du hizkuntz politika berriak.
- Nolanahi ere, eta alor honetan ere belaunaldi gazteei aipamen berezia egitea guztiz arrazoizko eta komenigarria denez, errepara diezaiogun esparru ez formaletako eskaintzari, bereziki haur eta gazteei zuzenduari alegia: euskara ohiko hizkuntza bilakatzeko ahalegin berezia egin behar da alor honetan, azken batean, horretan baitatza erabilera aukerak sortzea, eta –aitor dezagun beste behin ere– horixe bera da, eta ez besterik, belaunaldi gazteen atxikimendurako sarraila irekitzen duen erakargarritasunaren giltza.

**H**aur eta gazteen esparru ez-formaletako eskaintzari arreta berezia eman behar zaio:

- Erabilera aukerak sortzea.
- Erakargarritasuna lantzea.

## E. Eskola eta haren ingurunearena, berez nahikoa ez den ekarpen ezinbestekoa

- Ez dakigu eskolak eman zezakeen guztia eman ote duen, baina ikaragarria da euskararen biziberritzeari eta eleaniztasunaren helburuari eman diena. Baieztapen hori egiaztatzeko aski

da berrikitan plazaraturiko IV Inkesta Soziolinguistikoaren datu bat: 16-24 adin multzoko herritarren %57,5 da elebidun (elebidun hartzailleak gehituta, kopurua %82,4ra iristen da). Beraz, euskara gazteen hizkuntza da, duela hogei urte helduena eta adinekoena zen bezala, nahiz beste ezaugarri batzuekin. Izan ere, gazte horietako askok euskara-gaitasunean mugak baitituzte, besteak beste euskara bigarren hizkuntzatzat dutelako, gun e erdaldunetan bizi direlako, nagusiki gaztelaniaz funtzio-

**Eskolaren ekarpen nagusia: ikasleek bi hizkuntza ofizialetan gaitasun nahikoa lortzeko duten betebeharra eta irakaskuntzarako hizkuntza aukeratzeko eskubidea harmonizatzea.**

natzen duten harreman sareak dituztelako, eta abar. Erronka berriak ekarri dituen bilakaera soziolinguistiko hori, nola ez, familiaren barneko transmisioaren, helduen euskalduntze-alfabetatze sistemaren eta, bereziki, eskolaren lorpena da, eta horretan sakondu beharko da aurrerantzean ere. Horretarako, zuzendu beharrekoak detektatu eta adostasun zabalez aldatzeari ekin beharko zaio, beti ere helburu

nagusia garbi izanik: eskolak euskaldundu du, euskalduntzen du eta euskalduntzen jarraitu behar du, gurasoek seme-alaben irakaskuntzarako hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta ikasleek derrigorrezko irakaskuntzaren buruan EAEko bi hizkuntza ofizialetan gaitasun nahikoa lortzeko betebeharra harmonizatuz. Hirugarren hizkuntza baten neurri apalagoko irakaskuntzari ere tokia egin behar zaio bertako bi hizkuntza ofizialen irakaskuntzaren ondoan.

- Eskolari ezin zaio, ordea, mirakulurik eskatu: eskolak elebidundu dezake ingurune erdaldunean bizi den ikaslea, baina ezin zaio eskolari eskatu ikasle horren euskara-gaitasuna ingurune edota familia elebidunean bizi den baten mailakoa izatea. Ahalgin berezia egin beharko da gun e erdaldunetan, nolnahi ere, eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera bermatzeko. Horretarako, eskolaren eta auzo, herri edota hiriko elkarteen ar-



teko lankidetzaren protokoloak bultzatu behar dira, ikasleei euskara esparru ez-formaletan erabiltzen jarraitzeko zirkuitu egokiak eskaintzearen.

- Urteotako praktikaren arabera, ondorengo belaunaldiengan utzi dugu euskara biziberritzeko lana. Eskarmentuz dakigu orain euskara biziberritzeko prozesua askoz ere dinamikoagoa dela, eta eskolaz kanpoko faktoreak erabakigarriagoak direla, zeharo. Asmorik onenarekin mamituriko boluntarismoari zor zaio gurean guztiz erroturiko uste okerra: nahikoa dela eskolaren lana euskara bigarren hizkuntzatzat eskuratzeko. Egia da, jakina, guztiz posible dela euskara bigarren hizkuntza gisa eskolan ikastea, eta egia da, halaber, edonork bihur dezakeela horrela ikasitakoa bere barruko hizkuntza, baina baldintza zehatz bat dago horretarako: eskolatik kanpo ere euskaraz bizi eta sozializatzea. Eta, jakina, baldintza ororen gaineratik garrantzikoena: euskara erabiltzeko borondatea. Hori da funtsezko garrantzia hizkuntzaren etorkizunerako. Nolanahi ere, beti izan behar dugu kontuan horretarako muga eta zailtasun ugari ditugula EAEko udalerrri askotan, oso anizkoitza delako errealitate soziolinguistikoa eta, beraz, oso neurri ezberdinetakoa delako herriz herri euskarak duen bizi-indarra.
- Azken batean, eskolak, euskararen eta euskarazko irakaskuntzari dagokionez bederen, gaur egungo transmisio eredutik eredu aktiboetara pasatu behar du, era progresiboan eta ingurunearekin lankidetzan, eta egokitasuna eta komunikaziorako gaitasuna lehenetsiz ikuspegi gramatikal hutsaren gaineratik. Erabilera dugu, beraz, berriz ere gako nagusia.

### **Euskara biziberritzeko prozesuan garbi dakizkigunak:**

- **Eskolak elebidundu dezake, baina eskolaren lana ez da nahikoa.**
- **Eskolatik kanpo euskaraz bizi eta sozializatzea da adierazgarritasunaren giltza.**
- **Euskara erabiltzeko borondatea dago guztiaren muin-muinean.**

### **3. LEHENTASUNEZKO ILDOAK XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKARENTZAT**

1. Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasgune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
3. Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
4. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
5. Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
6. Elebitasun pasiboa helduen munduan –eta gutxieneko helburutzat– areagotzea eta prestigiatzea.
7. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
8. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
10. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.

11. Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unitertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.
12. Euskararen irudiar prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.
13. Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiez baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.
14. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berritu baten bila.



## IV. ITUN BERRITU BATERANTZ

TXOSTEN HONEN LUZE-ZABALEAN, aurretik bezala jarraian, jasota daudenak dira itun berri baterantz urratu beharreko bidean garatu beharko liratekeen abiapuntuak eta oinarriak.

### 1. ADOSTASUNEAN, PERTSUASIOAN ETA TINKOTASUN DEMOKRATIKOAN OINARRITURIKO HIZKUNTZA POLITIKAREN PREMIA

Hizkuntza politika beharrezkoa da, hain zuzen, bi hizkuntzen arteko estatus berdintasuna ez delako berez (edo merkatuaren legeen eraginez, edo hiztun batzuen edo besten ahalegin soilarengatik) inon gauzatu ezta gauzatu ere. Helburu hori lortzeko, hizkuntzen arteko aukera berdintasuna alegia, ezinbestekoa da esku hartze politikoa, eta nahitaezkoak dira, beraz, lege, dekretu eta gainerako arauak.

Hori onartuta, neke handirik gabe onartuko dugu hizkuntza politikak modu bateko edo besteko hertsatze-maila bat dakarrela berarekin, hainbat ezerosotasun alegia, hori bera baita demokraziaren oinarri nagusia: zilegi ez ezik beharrezkoa ere bada gizartearen gehien-  
goz onetsiriko arauak gizarteak betetzea.

Kontua da, ordea, hizkuntza politika gizarte demokratiko baten bizimoduaren muin-muineko osagaia denez, beste hainbat alo-

**H**izkuntza politika diseinatu eta kudeatzen dutenek ahalik eta adostasun edo kontsentsu zabalena erdiesteko etengabeko ahalegina egin behar dute.

rretan baino are ahalegin handiagoa egin beharko dutela hizkuntza politika diseinatu eta kudeatzeko ardura beregain hartzen duten herri-aginte eta agintariek, hizkuntza politikaren eduki nagusien inguruan ahalik eta adostasun edo kontsentsu zabalena lortzeko.

Eta inork zalantzarik izango balu, oraindik ere, lege-araubide eta hizkuntza politika egokien ezinbestekotasunaz, aski luke hizkuntzaren bilakaera euskararen hiru administrazio-lurraldeetan aztertu eta erkatzea: emaitza guztiz ezberdinak lortu dira batzuetan

eta besteetan, ezberdinak izan direlako lurralde bakoitzeko lege markoa eta bakoitzean gauzatu den hizkuntza politika.

Baina lege-araubideak, euskararen biziberritzeari eta gizarte eleaniztun baterako bidean benetan eragingarria izango bada, herritar bakoitzaren atxikimendurik sendoene-

tik sortua behar du nahitaez, atxikimendu horrek bakarrik bihur baititzake jasangarri hizkuntza plangintzak sor ditzakeen ezerosotasunak. Herritarren atxikimendua da, beraz, giltzarria, eta gainerakoak (lege-araubidea, politika publikoak, plangintza), makulu. Jokabide horretan ez dago, inondik inora ere, inposaketarik, gizar-teak berak estatus berdintasun baterantz doan bidean bere buruari emaniko akordio demokratikoa baizik. Inposiziotzat hartzea gehien-go sozialak babesturiko egitasmoa, araua edo beste zernahi, demokrazia iraultzea da.

Era berean, lege-araubidearen diseinu eta garapenak behar duten atxikimendua, jakina, pertsuasio eta erakargarritasunetik bazkatzen da, eta horiek dira euskal hiztunen elkarteak, euskara biziberritzeko hizkuntza politikaren lan-ildo guztietan lehentasun osoz, etengabean landu beharko dituen soroak.

**H**erritarren atxikimenduak bakarrik bihur ditzake jasangarri hizkuntza plangintzak sor ditzakeen ezerosotasunak.



eta, gero, norabide horri ondoen egokitzen zaion pausoa aukeratu, kontua ez baita estropada sozial zalapartatsu bat antolatzea, baizik eta ontziko arraunlari guztiak, indartsuena bezala ahulena ere, gizarte eleanitz baten helmugara iristea, kohesio sozialaren bidean barrena. Beraz, presa eza eta gehiegia, biak ala biak eta neurri berean, dira euskararen biziberritzerako kaltegarriak.

### **3. EUSKARA, NAZIO-ADSKRIPZIOA ETA POLITIKA: ERANTZUKIZUN SOZIALAREN TALAIATIK ZAINDU BEHARREKO HARREMANAK**

Euskarak ezin ditu bere baitan bildu identitate-adskripzio bakar bateko hiztunak. Horrela gertatuko balitz, ez ghetitora, baizik eta sektaraino daraman muga gaindituko genuke, euskarari eta gizarte kohesioari atzerakorik gabeko kaltea eraginez. Inolako identitate-euskarrik onartu beharko balitzaio euskarari, identitate ireki eta integratzaile bat eraikitzeke baliagarria dena izango litzateke soil-soilik onargarria eta, beraz, partaidetza kontzientzia sendotzeko balio duena; hau da, norberaren adskripzio askeari uko egitea eskatzen ez duen identitate-sistema eta, beraz, bere barnean adskripzio guztiak maila berean biltzeko gai dena, euskal herritar huts sentitzetik espainiar huts sentitzerainoko adskripzio guztiak naturaltasunez onartzen dituen.

Azken batean, identitate-adskripzio ugaritako hiztunak euskarara erakartzeak berez sendotzen du euskararen aldeko kultura kolektiboa, eta hori da euskararen biziberritzeak alferrik gal ez dezakeen altxorra.

**I**dentitate-adskripzio ugaritako hiztunak euskarara erakartzeak berez sendotzen du euskararen aldeko kultura kolektiboa.

Euskarak, jakina, politika behar du, baina euskararentzat baliagarria izango den politika, eta ez euskara politikaren zerbitzura jarriko duen jarrera.

Era berean, euskarak ez du batere onuririk jasotzen jarrera politiko jakin batekin edo



beste batekin identifikatzen; aitzitik, identifikazio horrek aldatu egiten ditu jarrera politiko horrekin bat ez datozenak, eta hori da, hain zuzen ere, euskara gizarte eleaniztun baten baitan biziberritzea helburu duen hizkuntza politikaren aurka doan praxia, identifikazio

kaltegarri horrek errotik ukatzen baitu hizkuntza politikaren beraren zilegitasun demokratikoaren marko orokorra: kohesio sozialaren aldeko konpromisoa.

Hipotesirik txarrean ere, hainbatek euskara bere egin ez izateak ez du zurriz beste batzuek euskararen alderdikieriazko erabilera egiterik, are gutxiago multzo politiko edo ideologiko jakin bateko edo besteko ondare pribatu bihurtzerik; inork euskara bere mesedetan instrumentalizatzeak zurriz ez duen bezala inork euskarari bizkarra erakusterik. Euskararen aldeko errebindikazio politikoa positiboa den bezala, ez da bidezkoa euskararen etorkizuna programa politiko jakin baten edo bestearen etorkizunaren menpe jartzea.

Beraz, eta koherentziaz jokatzeko, alde bakarrek sinbologia politikoak agertzea baztertu beharko litzateke, arreta handiz, euskararen aldeko ekimenetan. Euskarak gizartean duen onspen eta erakarmena ez litzuke inork baliatu beharko alderdi-etekinik ateratzeko, jatorriz euskararen aldeko izan zitezkeen hainbat ekimen instrumentalizazio politikoak desitxuratuetan askotxotan ikusi ohi dugun bezala.

**Euskara jarrera politiko jakin batekin identifikatzeak aldatu egiten ditu jarrera politiko horrekin bat ez datozenak.**

#### **4. EUSKARA BIZIBERRITZEA, HERRITAR OROREN ERABAKIMENAREN BAITAKO KONTUA, AKORDIO ZABAL ETA ERATZAILA BATEN IKUSMIRAN**

Ezin da erdararen eta euskararen munduen arteko dibortzioa betikotu: herritar guztiei (baita euskaratik urrun daudenei ere) dagozkie hizkuntza politika itxuratzea, adostea, mamitzea. Ez baitago “euskararen auzia”, euskal herritarren hizkuntzen arteko bizikide-

**H**izkuntzen arteko bizikidetasunaren gaia akordio eraikitzaile nagusien agendan sartu beharra dago, borroka politiko arruntetik aldenduz.

tzaren auzia baizik. Ez dezala inork, beraz, langintza horretatik inor baztertu eta ez dezala inork bere burua baztertu. Gizarte elea-niztun baten barnean euskara biziberritzea gizarte osoaren helburu kolektiboa da, eta, beraz, herritar guztiona, zeinahi delarik ere norberaren ideologia edo jarrera politikoa. Hortaz, ikuspegi hone-tatik, helburu nazionala da.

Hona, bada, XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oina-rrian egon behar duen itun berrituaren nondik norakoa: Euskararen Legearen inguruan sorturiko kontsentsua eraberritu eta zabaldu behar du, ikuspegi eratzaille batean. Hau da, euskal gizartea kohe-sionatzeko ahaleginaren gune-gunean txertatu behar da euskara bi-ziberritzeko hizkuntza politikaren inguruko adostasuna, hizkuntzen arteko bizikidetzaren gaia akordio eraikitzaile nagusien agendan sartuz eta, hein berean, borroka politiko arruntetik baztertuz.

## **5. ITUN BERRITUAREN BIDEAN BEHAR DEN ADOSTASUNAZ**

Lehenik eta behin, garbi utz dezagun abiapuntua, aurreko ataletik datorrena: euskara ez da kontu sektorial bat, gizarte osoari dagokio-na baizik, eta gizarte helburu eratzailleen osagai funtsezkoa da, gi-zarte kohesioaren perspektiban. Beraz, hizkuntza politikak ezin du, bere helburu eta metodologia propioez, politika orokorraren helburu funtsezkoena izan behar duen kohesio soziala bihurritu.

Euskara guztiona denez, guztiok erabaki behar ditugu hari buruzkoak. Hortaz, euskara biziberritzearekiko kontzientzia edo kultura kolektibo berria sortu beharra dago, nahitaez, euskararen eta euskal gizarte eleanitz baten aldeko itun berritua haren gainean bermatzeko. Eta kontzientzia hori integratzailea nahi baldin bada, kontsentsua beharrezkoa bakarrik ez, desiragarria bakarrik ez, ezinbestekoa ere bada.

Adostasuna baita edozein politika demokratikok berezkoa duen ezaugarri funtsezkoa. Kontsentsu horren neurriak ez du zertan izanik beti bat eta bera, baina gizarte bizikidetzaren osagai funtsezkoa den hizkuntza politikaren kontu honetan, adostasun ahalik eta zabalena behar dugu, bai kuantitatiboa, bai kualitatiboa.

Eta bi arrazoiengatik da ezinbestekoa adostasun zabal hori: gizarte anizkoitz baten elementu eratzailerik bat delako hizkuntza politika, bate-tik, eta, bestetik, eragingarritasunaren eta arrakastaren izenean.

Bi elementu eskatzen ditu kontsentsuaren aldeko jarrera honek: malgutasuna eta aldekotasuna. Herritar gehienek borondatea behartuko lukeen konpromisoa ez litzateke egokia izango, eta horregatik behar da malgutasuna; baina, aldi berean, aldekotasunari bizkarra erakutsiko liokeen malgutasuna ere ez litzateke onargarria izango. Eta adostasunaren izenean denok moldatu behar badugu ere gure posizioetatik, gehixeago mugitu beharko dute orain arte euskararen errealitatera hurbildu ez diren sektore sozio-politikoak. Nolanahi ere, langintza horrek eskatzen duenari jator erantzun beharko genioke denok.

Hizkuntza politika guztiz eta beti da eztabaidagarria. Eztabaidatu ezin daitekeena, berriz, hizkuntza politikaren premia da, *laissez-faire* bera ere hizkuntza politika baita: euskara biziberritzearen aurkakoa eta, beraz, gizarte eleaniztun baten helburuaren alderantzizko norabidean doana. Era berean, jakina, hizkuntza politika bat baino gehiago dira posible, baina ukaezina da, orobat, euskararen normalkuntzaren aldeko politika izan behar duela euskal gizartearen eragile soziopolitiko guztiak konprometituko dituen itun berrituaren oinarrian dagoen hizkuntza politikak.

Euskal Autonomia Erkidegoa da, esan izan dugun bezala, proposatzen dugun hizkuntza politikaren ildo berriaren esparrua,

**K**ontsentsua lortze aldera, bi ezinbesteko baldintza:

- **Malgutasuna.**
- **Euskararekiko aldekotasuna.**

**I**tun berritu baten atarian, ezinbestez adostu beharko da **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) berrikuspena.**

eta, esana dago, euskararen lurralde bakoitzeko esparruari dago-  
kio, demokratikoki eta bertako herritarren borondate eta asmoen  
arabera, tokian tokiko hizkuntza politika diseinatu, gauzatu eta eba-  
luatzea, beti ere gutxiengoaren eskubideekiko errespetua bermatuz.  
Nolanahi ere, gure Erkidegoko herri-aginteeek jarraitu behar dute  
euskararen gainerako lurraldeetako erakundeekin elkarlana eta lan-  
kidetza indartzen, hizkuntza politikaren garapenean.

Neurri eta sakonera horretako itun berri baten atarian,  
ezinbestez adostu beharreko helburua da Euskara Biziberritzeko  
Plan Nagusiaren (EBPN) berrikuspena, lanabes baliotsu hori XXI.  
mende hasierari begira findu eta egokitzeko.